### 2.2 Nahitaezkoak ez diren kontabilitate-printzipioak

Urteko kontu laburtu hauek prestatzeko aplikatu diren kontabilitate-printzipioak eta -irizpideak memoria laburtu honetako 4. oharrean adierazten direnak dira. Printzipio eta irizpide horiek nahitaez aplikatu beharrekoak dira; ez da aplikatu nahitaezkoak ez den kontabilitate-printzipiorik edo -irizpiderik.

### 2.3 Balorazioaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren estimazioa

2021eko ekitaldiari dagozkion urteko kontu laburtuak prestatzeko, Fundazioaren Patronatuaren iritziak eta estimazioak erabili dira, haietan erregistratuta azaltzen diren aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromisoetako batzuk kuantifikatzeko. Estimazio horiek esperientzia historikoan eta egungo baldintzetan arrazoizkotzat jotzen diren beste faktore batzuetan daude oinarrituta.

Ez dago etorkizunari buruzko funtsezko suposiziorik, ez eta ekitaldiaren itxieradatan ziurgabetasunaren zenbatespenari buruzko beste datu esanguratsurik ere, hurrengo ekitaldian aktiboen eta pasiboen balioan aldaketa esanguratsuak eragin ditzakeen arrisku garrantzitsua bati lotuta.

Ez da kontabilitate-estimazio esanguratsuetan aldaketarik egon, uneko ekitaldian eragina izan dezakeenik edo hurrengo ekitaldietan eragina izan dezaketenik.

#### **2.4 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean dagoen Kontabilitate Plan Orokorraren aldaketen lehen aplikazioa**

Urtarrilaren 12ko 1/2021 Errege Dekretua indarrean jartzeak ez du eraginik izan ondare garbian.

Behean, Fundazioak lehen aplikazioko datan (2021eko urtarrilaren 1ean) aplikatutako 1/2021 Errege Dekretuan jasotako arteko trantsizio-aukerak zehazten dira, bai eta inpaktu garrantzitsuenak ere.

##### Finantza-tresnen sailkapenaren eta balorazioaren arloko aldaketen lehen aplikazioa

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean dauden kontabilitate-aldaketen ondorioz, aldatu egin dira finantza-aktibo eta -pasiboen balorazio-sailkapenaren kategoriak, eta kategoria horiek araudi berrian aurreikusitakoetara egokitutira dira. Hona hemen birsailkapenen xehetasunak:

		Euro Euroak	
Sailkapena 2020ko abenduaren 31n / Clasificación a 31 de diciembre de 2020	Sailkapena 2021eko urtarrilaren 1ean / Clasificación a 1 de enero de 2021	Zenbatekoa 2020ko abenduaren 31n / Importe a 31 de diciembre de 2020	Zenbatekoa 2021eko urtarrilaren 1ean / Importe a 1 de enero de 2021
Maileguak eta kobratzeko partidak / Préstamos y partidas a cobrar	Kostu amortizatuko finantza-aktiboak / Activos financieros a coste amortizatua	53.120	40.000
Zorrak eta ordaintzeko partidak / Débitos y partidas a pagar	Kostu amortizatuko finantza-pasiboa / Pasivos financieros a coste amortizado	53.120	40.000

## **2.5 Informazioaren konparazioa**

2021eko ekitaldiko urteko kontu laburtuek, konparazioak egin ahal izateko, balantze laburtuko eta emaitza-kontu laburtuko partida bakoitzarekin, 2021eko ekitaldiko zifrez gain, aurreko ekitaldikoak ere aurkezten dituzte. Era berean, 2021eko ekitaldiari dagokion memoria laburtu honetan jasotako informazioa 2020ko ekitaldiko informazioarekin konparatzeko aurkezten da.

## **2.6 Kontabilitate-irizpideen aldaketak**

2021eko ekitaldian zehar kontabilitate-irizpideetan ez da aldaketarik egon aurreko ekitaldian aplikatutakoekiko.

## **2.7 Erroreen zuzenketa**

2021eko ekitaldiko urteko kontu laburtuek ez dute ekitaldian detektatutako erroreen ondorioz egindako doikuntzarik barne hartzen.

## **2.8 Garrantzi erlatiboa**

Finantza-egoeren edo beste gai batzuen partida desberdinei buruzko memoria laburtuan banakatu beharreko informazioa zehaztean, Fundazioak kontuan hartu du 2021eko ekitaldiko urteko kontu laburtuei dagokienez duten garrantzi erlatiboa.

## **3. Soberakina aplikatzea**

Ondare garbiari zuzenean egotxitako soberakinak ezin dira banatu, ez zuzenean ez zeharka.

2021eko eta 2020ko ekitaldietan nulua izan da emaitza; beraz, ez da soberakinik egon.

## **4. Erregistrozko eta baloratzeko arauak**

Fundazioak urteko kontu laburtu hauek prestatzeko erabilitako kontabilitate-irizpide nagusiak hauek dira:

### **4.1 Ibilgetu ukiezina**

Arau orokor gisa, ibilgetu ukiezina eskuratze-prezioaren edo produkzio-kostuaren arabera baloratzen da hasiera batean. Ondoren, haren kostu-balioa baloratzen da, amortizazio metatua kenduta, balio-bizitzaren arabera kalkulatuta, eta, hala badagokio, narriaduragatiko balio-zuzenketen zenbateko metatuaaren arabera.

Ibilgetu ukiezinak bizitza baliagarri mugatuko aktiboak dira; amortizatu egiten dira, beraz.

### ***Erabileran lagatako aktiboen gaineko eskubideak***

Gernikako Artekale 1 - 1 kalean dagoen eraikinaren gaineko erabilera-eskubideak (Bizkaiko Foru Aldundiaren jabetzakoa da eta Fundazioaren bulegoak inolako kontraprestaziorik gabe daude bertan), salmenta-balioan daude erregistratuta eta hamar urteko epean linealki amortizatzen dira.

### **4.2 Ondare Historikoko ondasunak**

Fundazioak ibilgetu materialerako ezarritako irizpideen arabera baloratzen ditu Ondare Historikoko ondasunak.

Liburutegia, hau da, liburu, eskuizkribu eta bestelako material bibliografikoen multzoak edo bildumak, edo areto publikoan irakurtzeko edo aldi baterako maileguaren bidez erreproduzitutakoak, hezkuntzaren, ikerketaren, kulturaren eta informazioaren zerbitzura, eskuratze-prezioaren arabera balioesten dira, eta, hala badagokio, narriaduragatik izandako hornidurak hornitzen dira.

Ondare Historikoko ondasunak ez dira amortizatzen haien zerbitzu-potentziala hain astiro erabiltzen denean, non haien bitzia baliagarri zenbatetsiak mugagabeak baitira, eta ez dute higadurarik beren funtzionamenduagatik, erabileraagatik edo gozamenagatik.

### **4.3 Ibilgetu materiala**

Ibilgetu materialean sartutako ondasunak eskuratze-prezioaren edo produkzio-kostuaren arabera baloratzen dira hasiera batean; gerora, berriz, beren amortizazio metatuaren eta narriaduragatiko balizko galeren kostu garbiaren arabera.

Ibilgetu materialetako ondasunak berritzeko, handitzeko edo hobetzeko kostuak aktiboan sartzen dira, ondasunaren balio handiago gisa, ondasunaren gaitasuna, produktibilitatea edo bitzitzia baliagarria luzatzea dakarten heinean, eta, ondorioz, ordeztutako edo berritutako elementuen kontabilitate-atzerapena eragiten dute.

Erabilera hobetzen ez duten eta aktiboen bitzitzia baliagarria luzatzen ez duten mantentze-, kontserbazio- eta konponketa-gastuak emaitzei egotziko zaizkie, sortzapenaren printzipioari jarraituz, horiek egin diren ekitaldiko kostu gisa.

Eskudirua sortzen ez duten ibilgetu materialetako ondasunak merkataritza-errendimendua sortzea ez den beste helburu batekin edukitzen direnak dira, hala nola aktibo horiek sortzen dituzten fluxu ekonomiko sozialak, kolektibilitateari mesede egiten diotenak, hau da, gizarte-onurari edo zerbitzu-potentzialari.

Fundazioak metodo linealari jarraituz amortizatzen du bere ibilgetu materiala, eta eskuratze-kostua ken hondar-balioa, hala badagokio, kalkulatutako bitzitzia baliagarriaren urteen artean banatzen du.

Aktibo bat besterentzeak edo erretiratzeak eragindako mozkin edo galera salmenta-prezioaren eta aktiboaren liburuetako zenbatekoaren arteko differentzia gisa kalkulatzen da, eta emaitza-kontu laburtuan kontabilizatzen da.

Fundazioaren Patronatuaren iritziz, aktiboen kontabilitate-balioak ez du gainditzen aktiboen balio berreskuragarria, 4.4 oharrean azaldutakoaren arabera kalkulatzu.

4.4 oharrean deskribatzen dira aktibo horiek narriatzeagatiko galerak eta, hala badagokio, aurreko ekitaldietan erregistratutako narriaduragatiko galeren berreskurapenak kontabilizatzeko irizpideak.

#### **4.4 Ibilgetu materialaren balioaren narriadura**

Ibilgetu materialeko elementu baten balio narriaduragatiko galera gertatzen da, haren kontabilitate-balioa handiagoa denean balio berreskuragarria baino, balio berreskuragarria arrazoizko balioaren (salmenta-kostuak kenduta) eta erabilera-balioaren arteko zenbateko handiena dela ulertuta. Diru-fluxurik sortzen ez duen aktibo baten balio-narriadura zerbitzu aktiboko potentzialaren galera da, amortizazioak dakarren balio-galera sistematiko eta erregularraz bestelakoa. Narriaduraren arrazoia, beraz, aktiboak eskaintzen duen erabilgarritasuna jaistea da. Indarrean dagoen araudiaren arabera, diru-fluxuak sortzen ez dituen aktibo baten erabilera-balioa birjarpen-kostuaren arabera zehaztuko da.

Ondore horietarako, ekitaldi-itxieran gutxienez, Fundazioak ebaluatzen du ibilgetu materialeen bat narriatuta egon daitkeen zantzurik dagoen ala ez, eta, kasu horretan, zenbateko berreskuragarria kalkulatzen du, dagozkion balorazio-zuzenketa eginez. Ibilgetu materialeko elementuen narriaduragatik egindako balorazio-zuzenketa eta haien lehengoratzea, horiek eragin zituzten inguruabarrik desagertu direnean, gastu edo diru-sarreratzat hartzen dira, hurrenez hurren, emaitza laburtuen kontuan. Narriaduraren itzulketaren muga itzulketa-datan kontabilizatuta dagoen ibilgetuaren kontabilitate-balioa izango da, balioaren narriadura erregistratu ez bada.

2021eko eta 2020ko ekitaldietan Fundazioak ez du ibilgetu materialaren narriaduragatiko galerarik erregistratu.

#### **4.5 Finantza-tresnak**

Fundazioak finantza-tresnen kapituluau erregistratuta ditu erakunde batean finantza-aktibo bat eta, aldi berean, beste erakunde batean finantza-pasibo bat edo ondare-tresna bat sortzen dituzten kontratuak.

Finantza-tresnak, hasierako kontabilizazioa egitean, finantza-aktibo, finantza-pasibo edo ondare propioko tresna gisa sailkatzen dira, kontratu-akordioaren funts ekonomikoarekin eta finantza-aktibo, finantza-pasibo edo ondare-tresnaren definizioekin bat etorri.

Balorazio-ondoreetarako, finantza-tresnak kategoria hauetan sailkatzen dira: maileguak eta kobrau beharreko partidak, negoziatzeko mantendutako finantza-aktiboak eta -pasiboak, emaitzen kontu laburtuan aldaketak dituzten arrazoizko balioko bestelako finantza-aktiboak eta -pasiboak, mugaegunera arte mantendutako inbertsioak,

finantza-aktibo salgarriak, eta zordunketak eta ordaindu beharreko kontuak.

Aurreko kategorietan sailkatzeko, kontuan hartzen dira tresnaren ezaugarriak eta Fundazioaren Patronatuak hasierako aintzatespenaren unean zituen asmoak.

Fundazioa kontratuaren edo negozio juridikoaren alderdi obligaziodun bihurtzen denean kontabilizatzen dira finantza-tresnak, haren xedapenen arabera.

### **Finantza-aktiboak**

#### **Sailkapena eta balorazioa**

Fundazioak dituen finantza-aktiboak kategoria hauetakoak dira:

##### ***1. Kostu amortizatuko aktiboak***

Jarduera propioko eragiketetan sortutako finantza-aktiboak dira (erakundeen eragiketengatiko kredituak), edo, Fundazioaren jardueretan jatorria izan ez arren, ondare-tresna edo eratorriak ez direnak, eta kobrantzak zenbateko zehatzekoak edo zehazgarriak direnak eta merkatu aktibo batean negoziatzen ez direnak (gainerako eragiketengatiko kredituak).

Finantza-aktibo horiek, hasiera batean, transakzioaren prezioari dagokien arrazoizko balioan erregistratzen dira, kontrako ebidentziarik izan ezean; hau da, entregatutako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi transakzioaren kostuak, zuzenean egoztekiko modukoak direnak. Ondoren, aktibo horiek kostu amortizatuaren arabera baloratzen dira. Sortutako interesak emaitza-kontu laburtuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuz.

Hala ere, urtebetetik gorako epemuga ez duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duten jardueren eragiketengatiko kredituak (kobratzeko dibidenduak), horien zenbatekoa epe laburrean jasotzea espero denean, balio nominalaren arabera baloratuko dira, diru-fluxuak ez eguneratzearen efektua ez denean esanguratsua.

Fundazioak, gutxienez ekitaldiaren itxieran, beharrezko balorazio-zuzenketak egiteko irizpideari jarraitzen dio, baldin eta objektiboki ikusten bada kreditu baten balioa narriatu egin dela hasierako aintzatespenaren ondoren gertatutako gertaera baten edo gehiagoren ondorioz, eta etorkizuneko diru-fluxu estimatuak murriztu edo atzeratu egin direla, zordunaren kaudimengabeziaren ondorioz gerta daitekeela kontuan hartuta. Kasu horretan, balio-narriaduragatiko galeraren zenbatekoa finantza-aktiboaren liburubalioaren eta etorkizuneko diru-fluxu zenbatetsien balio eguneratuaren arteko aldea da, hasierako kontabilizatzean kalkulatutako interes-tasa efektiboan deskontatuta.

Narriaduragatiko balorazio-zuzenketak eta horien itzulketa, galeraren zenbatekoa murrizten denean ondorengo gertakari baten ondorioz, gastu edo sarrera gisa hartzen dira emaitza laburtuko kontuan. Narriaduraren itzulketaren muga da aktiboek liburuetan izan zuten balioa, balio-narriaduragatiko galera erregistratu ez bada.

### ***Finantza-aktiboen baja***

Fundazioak baja ematen die finantza-aktiboei finantza-aktiboaren diru-fluxuen gaineko eskubideak iraungi direnean edo laga direnean eta bere jabetzari berezko zaizkion arriskuak eta onurak funtsean transferitu direnean.

Finantza-aktiboari baja ematen zaionean, transakzio-kostu egozgarrietatik jasotako kontraprestazio garbiaren eta aktiboaren kontabilitate-balioaren arteko aldeak, gehi zuzenean ondare garbian kontabilizatu den edozein zenbateko metatuk, aktibo horri baja ematean sortutako irabazia edo galera zehazten du, eta baja hori gertatzen den ekitaldiko emaitzaren parte da.

### **Kostu amortizatuko finantza-pasiboak**

Finantza-pasiboak dira Fundazioak bere jarduerarekin lotutako eragiketetan sortutako zorrak eta ordaindu beharreko partidak (jardueren eragiketengatiko zorrak), edo, jatorria Fundazioaren jardueretan izan gabe, finantza-tresna deribatutzat hartu ezin direnak (jarduerekirik zerikusirik ez duten eragiketengatiko zorrak).

Zorrak eta ordaindu beharreko partidak, hasiera batean, transakzioaren prezioari dagokion arrazoizko balioan baloratzen dira, kontrako ebidentziarik izan ezean; hau da, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi transakzioaren kostuak, zuzenean egozteko modukoak direnak. Ondoren, pasibo horiek beren kostu amortizatuarekin baloratzen dira. Sortutako interesak emaitza-kontu laburtuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuz.

Hala ere, urtebetetik gorako epemuga ez duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duen jarduera propioaren jardueren eragiketengatiko zorrak, horien zenbatekoa epe laburrean ordaintzea espero denean, balio nominalaren arabera baloratuko dira, diru-fluxuak ez eguneratzearren efektua ez denean esanguratsua.

Fundazioak baja ematen die finantza-pasiboei, horiek sortu dituzten obligazioak iraungitzen direnean. Fundazioak finantza-pasiboaren edo baja ematen zaion pasibo horren zatiaren liburu-balioaren eta ordaindutako kontraprestazioaren arteko aldea aitortzen du (transakzio-kostu egozgarriak eta onartutako eskudirua edo pasiboa ez den lagatako beste edozein aktibo barne), dagokion emaitza-kontu laburtuan zordunduta edo abonatuta.

### **Arrazoizko balioa**

Arrazoizko balioa da aktibo bat trukatzeko edo pasibo bat likidatzeko zenbateko bat, alderdi interesdunen artean eta behar bezala informatuta, elkarrekiko independentzia baldintzetan transakzio bat egiten dutenean.

Oro har, arrazoizko balioan baloratutako finantza-tresnen balorazioan, Fundazioak horien merkatu-balioa erabiltzen du, burtsako kotizazioarekin edo ekitaldiaren itxierako balio likidagarriarekin bat datorrena.

#### **4.6 Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak**

Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk barnean hartzen dituzte kutxako eskudirua eta kreditu-erakundeetako ageriko banku-gordailuak.

#### **4.7 Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak**

Jasotako dirulaguntzak, Eusko Jaurlaritzak eta Gernika-Lumoko Udalak egindako ekarpenei dagozkienak, dirulaguntzak emandako programak garatzen diren ekitaldiko emaitzei egozten zaizkie, eta emaitzen kontu laburtuaren epigrafean erregistratzen dira, norberaren jardueragatiko sarrerak (12.1 oharra).

#### **4.8 Mozkinen gaineko zerga**

Ekitaldiko sozietateen gaineko zergaren gastua Irabazi-asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko martxoaren 20ko 4/2019 Foru Arauaren arabera kalkulatzen da (11. oharra).

#### **4.9 Sarrerak eta gastuak**

Sortzapen-irizpidearen arabera egozten dira sarrerak eta gastuak, hau da, ordezkatzen dituzten ondasun edo zerbitzuen benetako korrontea gertatzen denean, haietatik eratorritako diru- edo finantza-korrontea noiz sortzen den kontuan hartu gabe. Bereziki, emandako laguntzak gastu gisa erregistratzen dira, Fundazioko dagokion organoak esleitu, konprometitu edo ematen dituen ekitaldian.

Fundazioak jarduera propioagatik egiten dituen diru-sarrerek barne hartzen dituzte laguntzaileek egindako ekarpen itzulezinak, balantze laburtuaren pasiboa agertzen direnak, emandako jatorrizko zenbatekoarekin, eta emaitzei egozten zaizkie sortzapen-irizpidea aplikatuz.

#### **4.10 Ingurumen-izaerako ondare-elementuak**

Ingurumen-izaerako aktibotzat jotzen dira Fundazioaren jardueran modu iraunkorrean erabiltzen diren ondasunak, baldin eta haien helburu nagusia ingurumen-inpaktua minimizatzea eta ingurumena babestea eta hobetzea bada, etorkizuneko kutsadura murriztea edo ezabatzea barne.

Fundazioak bere jardueren ondorioz ingurumenean eragin dezakeen kaltea prebenitu, murriztu edo konpontzea helburu nagusi duten eragiketak egiten ditu.

Egindako ebaluazioak adierazten du Fundazioak ez duela ez erantzukizunik, ez gasturik, ez aktiborik, ez eta ingurumen-gaietako hornidura eta kontingentziarik ere, bere ondare, finantza-egoera eta emaitzetan garrantzia izan dezakeenik.

#### **4.11 Alderdi lotetsien arteko transakzioetan erabilitako irizpideak**

Talde bereko entitateen arteko eragiketak, lotura-maila edozein dela ere, arau orokoren arabera kontabilizatuko dira. Transakzioen xede diren elementuak, hasiera batean, arrazoizko balioaren arabera kontabilizatuko dira. Ondorengo balorazioa arau partikularretan kasuan kasuko kontuetarako aurreikusitakoaren arabera egingo da.

#### **4.12 Aktiboak eta pasiboak korrontearen eta ez-korrontearen artean sailkatzea**

Erantsitako balantze laburtuan, saldoak ez-korronteetan eta korronteetan sailkatzen dira. Fundazioak ohiko ustiapen-zikloan saldu, kontsumitu, ordaindu edo egin nahi dituen saldoak dira korronteak. Sailkapen honekin bat ez datozen gainerakoak ez-korrontetzat hartuko dira.

### **5. Ibilgetu ukiezina**

2021eko eta 2020ko ekitaldietan, ibilgetu ukiezinaren kontuetan eta horiei dagokien amortizazio metatuetan izandako mugimendua ondorengo hau izan da:

#### 2021eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldia

IBILGETU UKIEZINA	Erabileran lagatako aktiboen gaineko eskubideak	Guztira
<b>Kostua: 2020/01/01</b>	<b>102.000</b>	<b>102.000</b>
Gehikuntzak	-	-
<b>Kostua: 2020/12/31</b>	<b>102.000</b>	<b>102.000</b>
Gehikuntzak	-	-
<b>Kostua: 2020/12/31</b>	<b>102.000</b>	<b>102.000</b>
<b>2020/01/01eko amortizazio metatua:</b>	<b>(102.000)</b>	<b>(102.000)</b>
Amortizazioak	-	-
<b>2020/12/31ko amortizazio metatua guztira</b>	<b>(102.000)</b>	<b>(102.000)</b>
Amortizazioak	-	-
<b>2021/12/31ko amortizazio metatua guztira</b>	<b>(102.000)</b>	<b>(102.000)</b>
<b>Guztizko garbia 2020/12/31</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
<b>Guztizko garbia 2021/12/31</b>	<b>-</b>	<b>-</b>

## *Erabileran lagatako aktiboen gaineko eskubideak*

Fundazioak, 2004ko abenduaren 1etik aurrera, inolako kontraprestaziorik gabe, Gernikako Artekale kaleko 1-1. kaleko higiezin baten erabilera du esleituta. Higiezin horren balio aseguratua, Gernikako alkateak 2004ko abenduaren 1ean emandako ziurtagiriaren arabera, 102.000 eurokoa da, eta zenbateko hori salmenta-balioaren parekoena da.

Atxikipen-epea hamar urtekoa denez, erabilera-eskubideak zein dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak emaitzei egozten zaizkie haien bizitza baliagarrian zehar. Kostu erregistratuaren kontrapartida balantze laburtuko pasiboa jasotzen da, “Hartutako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak” epigrafean.

### **6. Ondare Historikoko ondasunak**

Epigrafe honen xehetasunak, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, 55.220 euroko liburutegi bat jasotzen du, Fundazioa eratu zenean ekarria (1. oharra), baina ez da kontabilitatean amortizatzen, haren bizitza baliagarri zenbatetsia mugagabetzat jotzen baita.

### **7. Ibilgetu materiala**

Hona hemen metatutako ibilgetu materialaren eta amortizazioen kontuetan 2021eko eta 2020ko ekitaldietan izandako mugimendua:

2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldia:

IBILGETU MATERIALA	Altzariak	Guztira
<b>Kostua: 2020/01/01</b>	<b>7.351</b>	<b>7.351</b>
Gehikuntzak	-	-
<b>Kostua: 2020/12/31</b>	<b>7.351</b>	<b>7.351</b>
Gehikuntzak	-	-
<b>Kostua: 2020/12/31</b>	<b>7.351</b>	<b>7.351</b>
<b>2020/01/01eko amortizazio metatua:</b>	<b>(7.351)</b>	<b>(7.351)</b>
Amortizazioak	-	-
<b>2020/12/31ko amortizazio metatua guztira</b>	<b>(7.351)</b>	<b>(7.351)</b>
Amortizazioak	-	-
<b>2021/12/31ko amortizazio metatua guztira</b>	<b>(7.351)</b>	<b>(7.351)</b>
<b>Guztizko garbia 2020/12/31</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
<b>Guztizko garbia 2021/12/31</b>	<b>-</b>	<b>-</b>

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, ibilgetu materialeko elementu guztiak, erabilera jarraituko egoeran, erabat amortizatuta daude.

## 8. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak

Hona hemen abenduaren 31n zordun komertzialen eta kobratzeko beste kontu batzuen datuak:

Euroak	Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	
	2021	2020
Hainbat zordun (konpainia lotetsiak)	40.000	53.120
Guztira	<b>40.000</b>	<b>53.120</b>

2020ko abenduaren 31ko balantze laburtuaren epigrafe honek Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzaren % 50ari (40.000 €) eta Gernika-Lumoko Udalaren 13.120 euroko dirulaguntzari dagozkien kobrau gabeko saldoak jasotzen ditu, 2021ean kobrau direnak.

2021eko ekitaldian, saldoak Eusko Jaurlaritzaren 2022ko urtarrilaren 21ean kobrau den dirulaguntzaren % 50ari dagokion kobrau gabeko zenbatekoa jasotzen du.

Gernika-Lumoko Udalak ematen duen 13.120 euroko dirulaguntzari dagokionez, Udalak berak zuzenean sartu du elkartearren kontuan; horregatik ez da 2021eko ekitaldi honetan balantzean jaso.

## 9. Funts propioak

Hauek izan dira "Funts propioak" kapituluko epigrafeetan 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietan izandako mugimendua:

FUNTS PROPIOAK	Fundazio-zuzkidura	Erreserbak	Aurreko ekitaldietako soberakinak	Ekitaldiko soberakina	FUNTS PROPIOAK GUZTIRA
<b>Saldoa 2019/12/31</b>	<b>80.052</b>	<b>-23.736</b>	<b>-887</b>	-	<b>55.429</b>
Gehikuntzak	-	-	-	-	-
Murrizketak	-	-	-	-	-
Intsuldaketak	-	-	-	-	-
<b>Saldoa 2020/12/31</b>	<b>80.052</b>	<b>-23.736</b>	<b>-887</b>	-	<b>55.429</b>
Gehikuntzak	-	-	-	-	-
Murrizketak	-	-	-	-	-
Intsuldaketak	-	-	-	-	-
<b>Saldoa 2021/12/31</b>	<b>80.052</b>	<b>-23.736</b>	<b>-887</b>	-	<b>55.429</b>

### 9.1 Fundazio-zuzkidura

Epigrafe honen saldoak, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, Elkarteak Fundazioa eratzean ekarritako ondasunei esleitutako kontabilitate-balorazioa hartzen du barnean (1. oharra), 80.052 eurokoa.

## **9.2 Erreserbak**

Erantsitako 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko balantze laburtuen epigrafe honen saldoa Fundazioak 2008ko ekitaldian Kontabilitate Plan Orokor berria indarrean sartzean egindako kontabilitate-irizpidearen aldaketari dagokio.

## **10. Finantza-pasiboak**

### ***Kostu amortizatuko finantza-pasiboen kategoriak***

Hona hemen finantza-pasiboen sailkapena, kategorien eta moten arabera, abenduaren 31n:

Euroak	<b>Kostu amortizatuko pasiboak</b>	
	<b>2021</b>	<b>2020</b>
Hainbat hartzekodun (konpainia lotetsiak)	40.000	53.120
<b>Guztira</b>	<b>40.000</b>	<b>53.120</b>

### ***Arrazoizko balioari buruzko informazioa***

Fundazioaren Patronatuaren iritziz, zordunketa-kontuen eta ordaindu beharreko partiden liburuetako zenbatekoa haien arrazoizko baliora hurbiltzen da.

## **11. Egoera fiskala**

Irabazi-asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zergaraaubideari buruzko martxoaren 20ko 4/2019 Foru Arauan ezarritako zerga-araubidearen mende dago fundazioa.

Fundazioak ikuskapen fiskalerako irekita ditu azken lau ekitaldietan egindako eragiketa guztiak. Fundazioaren Patronatuko kideen iritziz, ez dago zenbateko handiko kontingentziarik zerga-agintariekin ikuskaritzara irekitako ekitaldiak berrikustetik erator litekeenik.

4/2019 Foru Arauaren 9. artikuluaren arabera, sozietateen gaineko zergatik salbuetsita daude Fundazioaren helburu soziala edo helburu espezifikoa garatzen duten ustiapan ekonomikoetatik erorritako errentak, bai eta aurrekoen laguntzaile edo osagarri soilak edo garrantzi txikikoak direnak ere.

Bestalde, arauak salbuespen bat ezartzen du, laguntzaileek edo onesleek ordaindutako diru-sarrera eta kuotetatik eta salbuetsitako jarduerak finantzatzeko dirulaguntzetatik erorritako errentetarako.

Era berean, salbuetsita egongo dira Fundazioaren ondare higarri eta higiezinetik datozen errentak, bai eta edozein tituluren bidez ondasunak eta eskubideak eskuratu edo eskualdatzeagatik sortutakoak ere.

Aurrekoaren ondorioz, nulua da 2021eko eta 2020ko ekitaldietako sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarria.

## 12. Sarrerak eta gastuak

Behean, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiei dagozkien emaitza-kontu laburtuen epigrafeen edukia banakatzen da:

### 12.1 Ekitaldiko soberakinari egotzitako dirulaguntzak

2020ko eta 2021eko ekitalditarako banakatzea honako hau da:

Euroak	2021	2020
Administrazio publikotik datozen dirulaguntzak	<b>93.120</b>	<b>93.120</b>
- Eusko Jaurlaritza	80.000	80.000
- Gernika-Lumoko Udala	13.120	13.120
<b>Guztira</b>	<b>93.120</b>	<b>93.120</b>

### 12.2 Diruzko laguntzak

2021eko eta 2020ko ekitaldiko emaitza-kontuaren epigrafe laburtu honetan, Gernika Gogoratuz Bakearen aldeko Ikerketarako Elkarteak aurkeztutako jarduketa-programa garatzeko Fundazioak egindako ekarpena jasotzen da.

## 13. Fundazioaren jarduera. Ondare-elementuak helburu propioetarako aplikatzea. Administrazio-gastuak

### 13.1 Fundazioaren jarduera

Zuzendaritzak uste du Fundazioak garatutako programa bakarra dela helburu soziala lortzeko beharrezkoak diren jarduerak gauzatzea.

Fundazioak 2021eko ekitaldian lortutako baliabide ekonomikoak, Fundazioaren jarduera nagusia finantzatu dutenak, hauek izan dira:

2021		
SARRERAK	Aurreikusitakoa	Gauzatutakoa
Sektore publikoaren dirulaguntzak	93.120	93.120
<b>LORTUTAKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>93.120</b>	<b>93.120</b>

Bestalde, Fundazioaren jarduera nagusia gauzatzeko 2021eko ekitaldian erabilitako baliabide ekonomikoak hauek izan dira:

2021		
GASTUAK	Zenbatekoa	
	Aurreikusitakoa	Gauzatutakoa
Diruzko laguntzak	93.120	93.120
<b>GUZTIRA</b>	<b>93.120</b>	<b>93.120</b>

Fundazioak 2021eko ekitaldian egindako jardueraren onuradunen edo erabiltzaileen kopurua hau izan da:

2021		
MOTA	Kopurua	
	Aurreikusitakoa	Gauzatutakoa
Pertsona fisikoak	1378	1378
<b>GUZTIRA</b>	<b>1378</b>	<b>1378</b>

### 13.2 Ondare-elementuak helburu propietara aplikatzea

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 29.2 artikuluaren arabera, fundazioaren emaitza-kontu laburtuan kontzeptu guztiengatik lortutako diru-sarreren % 70, gutxienez, fundazioaren helburuak betetzeko erabili beharko du fundazioak, diru-sarrerak lortzeko egin dituen gastuak kenduta, fundazioaren helburuak betetzeari dagozkionak izan ezik. Betebehar hori betetzeko epea emaitzak eta diru-sarrerak lortu diren ekitaldiaren hasieratik ekitaldi hori itxi eta hurrengo hiru urteetara artekoa izango da.

Errenta eta diru-sarrera garbiak zehazteko, Babeslaritzaren antolamendu eta funtzionamenduari buruzko Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 21. artikuluan finkatutako irizpideak aplikatzen ditu Patronatuak.

Ondore horietarako, 2021eko eta 2020ko ekitalditarako errenta eta diru-sarrera garbiak 93.120 eurokoak dira bi datetan, ondoren zehazten den bezala kalkulatuta:

	Euroak	
	2021	2020
Sarrera gordin konputagarriak Ekitaldiko soberakinari egotzitako dirulaguntzak	93.120	93.120
Soberakin garbia	93.120	93.120

2021eko eta 2020ko ekitaldian Fundazioaren helburuak betetzera bideratutako funtsak 93.120 eurokoak izan dira bi data horietan, xehetasun honen arabera:

	Euroak	
	2021	2020
Diruzko laguntzak	93.120	93.120

Fundazioak bere fundazio-helburuetara bideratzen ditu lortutako diru-sarrera guztiak.

### 13.3 Administrazio-gastuak

Fundazioak aitortutako datuen arabera, ez dago administrazio-gastu espezifikorik 2021eko eta 2020ko ekitalditarako.

### 14. Itxi ondorengo gertakariak

Fundazioaren Patronatuak 2021eko azaroaren 9an egindako bileran, 2022ko aurrekontua onestea erabaki zen. Gernika Gogoratz Iraskundea urtero jasotzen dituen bi dirulaguntza nominalak biltzen ditu aurrekontu horrek. Horietako bat Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza nominala da, 80.000 eurokoa, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetza Sailburuordetzaaren Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzaren bitartez jasotzen duena; bigarrena, Gernika-Lumoko Udalaren dirulaguntza nominalari dagokiona, 13.120 eurokoa.

Onetsi da, halaber, Gernika Gogoratz Iraskundeari Eusko Jaurlaritzak 2022an emango dion dirulaguntza zuzenean eta nominalki izapideztea “Asociación de Investigación por la Paz Gernika Gogoratz. Gernika Gogoratz Bakearen Aldeko Ikerketarako Elkarteari”, Gernika Gogoratz Iraskundea 2022ko ekitaldian egingo dituen jarduerak finantzatzen laguntzeko.”

### 15. Alderdi lotetsiekiko saldoak eta eragiketak

#### 15.1 Alderdi lotetsiekiko saldoak

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, hauek ziren erakunde lotetsiekiko saldo zordunen eta hartzekodunen xehetasunak:

	Euroak			
	2021		2020	
	Zorduna	Hartzekoduna	Zorduna	Hartzekoduna
Eusko Jaurlaritza	40.000	-	40.000	-
Gernika-Lumoko Udala			13.120	
Gernika Gogoratz Elkartea	-	-40.000	-	-53.120

2021eko ekitaldian, 8. puntuaren (*Zor komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak*) aipatu den bezala, Gernika-Lumoko Udalaren laguntza zuzenean ordaindu zaio Elkarteari.

### **15.2 Alderdi lotetsiekin egindako eragiketak**

Hona hemen Fundazioak 2021eko eta 2020ko ekitaldietan erakunde lotetsiekin egindako transakzio nagusien datuak:

	Euroak			
	2021		2020	
	Ekitaldiko soberakinari egotzitako dirulaguntzak	Diruzko laguntzak	Ekitaldiko soberakinari egotzitako dirulaguntzak	Diruzko laguntzak
Eusko Jaurlaritza	80.000	-	80.000	-
Gernika-Lumoko Udalak	13.120	-	13.120	-
Gernika Gogoratuz Elkartea	-	-93.120	-	-93.120
<b>GUZTIRA</b>	<b>93.120</b>	<b>-93.120</b>	<b>93.120</b>	<b>-93.120</b>

### **15.3 Patronatuko kideen ordainsariak**

2021eko eta 2020ko ekitaldietan, Patronatuak goi-zuzendaritzako lanak hartu ditu bere gain, eta ez dute inolako zenbatekorik jaso edo sortu soldata eta lansari, dieta edo bestelako ordainsari gisa. Era berean, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n ez zegoen emandako mailegu edo krediturik, ez eta kide horiei dagokienez pentsioen edo biziaseguruen arloan hartutako obligaziorik ere.

## **16. Bestelako informazioa**

### **16.1 Aldaketak gobernu-organoetan**

2021eko ekitaldian aldaketak izan ziren Fundazioaren Patronatuan. Aldaketen ondoren (ikusi 2021-48-0461 esp.), honako kide hauek osatzen dute:

Presidentea Presidente	Don José M. <sup>a</sup> Gorroño Etxebarria jauna (Gernika-Lumoko alkate-udalburua / Alcalde Presidente del Ayuntamiento de Gernika-Lumo).
Idazkaria Secretaria	Doña Itxaso Bengoetxea Larrinaga andrea (Gernika Gogoratuz Elkartearen ordezkarria / representante de la Asociación Gernika Gogoratuz).
Kidea Vocal	Doña Monika Hernando Porres andrea (Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendaria / Directora de Derechos Humanos, Víctimas y Diversidad). Ordezkoa / Suplente: Don Enrique Ullibarriena Errasti jauna
Kidea Vocal	Doña Aintzane Ezenarro Egurbide andrea (Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institituaren–Gogora zuzendaria / Directora del Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos–Gogora). Ordezkoa / Suplente: Doña Amaia Goenaga Sánchez andrea
Kidea Vocal	Don Gorka Urrutia Asua jauna (Deustuko Unibertsitateko errektorearen ordezkarria / representante del rector de la Universidad de Deusto).

Kidea Vocal	Don Jokin Alberdi Bidaguren jauna (Gernika Gogoratuz Elkartaren ordezkaria / representante de la Asociación Gernika Gogoratuz).
Kidea Vocal	Doña María Oianguren Idigoras andrea (Gernika Gogoratuz Elkartaren ordezkaria / representante de la Asociación Gernika Gogoratuz).
Kidea Vocal	Don Jokin Garatea Gerrikagoitia jauna (Gernika-Lumoko Udalaren ordezkaria / representante del Ayuntamiento de Gernika-Lumo).

## 16.2 Hirugarrenekin eta bestelako pasibo kontingenteekin konprometitutako bermeak

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n Fundazioak ez zuen emanda finantza-erakundeen abalik edo halakorik hirugarrenen aurrean.

## 17. Ordainketa-geroratzeei buruzko informazioa

Merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legean eta merkataritza-eragiketetan hornitzaleei ordaintzeko batez besteko epearri dagokionez urteko kontu laburtuen memorian sartu beharreko informazioari buruzko Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Instituturen (ICAC) 2016ko urtarrilaren 29ko Ebazpenean ezarritakoaren arabera, 2020ko eta 2019ko ekitaldiak ixtean ez dago hornitzaleei ordaintzeko dagoen saldotik, ekitaldi horien itxieran legezko ordainketa-epea gainditzen duenik.

**FUNDACIÓN GERNIKA GOGORATUZ  
GERNIKA GOGORATUZ IRASKUNDEA**

Urteko Kontu Laburtuen Memoria

Sinatua:

72243666E  
JOSE MARIA  
GORROÑO (R:  
P4805500H)  
2022.10.25  
11:15:06  
+02'00'



**ITXASO  
BENGOECHEA  
LARRINAGA**

Firmado digitalmente por ITXASO  
BENGOECHEA LARRINAGA  
DN: cn=ITXASO BENGOECHEA  
LARRINAGA, O=GOOGLE-APPS, C=ES  
Zaragoza - Certificado de ciudadano  
Fecha: 2022-10-24 17:19:43 +02'00'

José María Gorroño Etxebarria jn.  
(Patronatuko presidentea)

Itxaso Bengoetxea Larrinaga and.  
(Patronatuko idazkaria)